

BIARRITZ, 2021EKO APIRILAREN 22A

O odol taldeko rhesus negatiboa: Pirinio Atlantikoetako berezitasuna!

EFS erakundeak Ipar Euskal Herriko emaileak odola ematera deitzen ditu, maiatzean iraganen den sentsibilizazio eragiketa handia kari.

Ipar Euskal Herriko biztanleen %15ek O odol taldea eta rhesus negatiboa dute. Odol mota hori emaile unibertsalena da, eta Frantzian, biztanleen %6 baizik ez da odol horretakoa!

Salbuespen horrek garrantzia berezia du Akitania Berriko EFS erakundearentzat, maiatzean odol emateari buruzko sentsibilizazio kanpaina antolatuko baitu, Pirinio Atlantikoetako emaileak mobilizatzeko!

Helburua: emaile guziak, eta bereziki O negatibo taldekoak, Pirinio Atlantikoetan zinez anitz baitira, **odola emateko hitzordua hartzera** deitzea. Odola etxerik hurbil eman dezakete, **ala Biarritzeko odola emateko etxean**, maiatzean, garai horretan maiz zaila izaten baita odol erreserbak atxikitzea.

O taldeko eta rhesus negatiboko emaileak "emaile unibertsalak" dira; hau da, haien globulu gorriak eri orori sartzen ahal zaizkie, edozein izanik ere beren odol taldea. Ezinbestekoak dira, beraz, bereziki berehalako bizi-larrialdiak gertatzen direlarik, hartzailearen odol taldea jakina ez delarik.

Bestalde, O negatibo taldeko eriei beren odol taldeko globulu kontzentrazioak baizik ezin zaizkie sartu.

Eragiketa honentzat, Biarritzeko odol emateko etxea tokiko kolorez jantziko da eta emaileei sorpresa artistikoak (dekoratuak, argazki erakusketak etab.) eta gozoak proposatuko dizkie.

Bestalde, gure lurraldeko kirol eta kultur elkarteek, eskolek eta tokiko enpresek ere eragiketaren lekukoa hartuko dute, ahal bezainbat parte-hartzaile biltzeko eta euskal salbuespenari merezi duen dirdira emateko!

Azkenik, kanpaina EFS erakundearen sare sozialetan ere iraganen da, tokiko sareetako jende ezagun batzuen sostenguarekin, biztanleak sentsibilizatzen eta emaileak hitzordua hartzera deitzeko.



NOUS, LES DONNEURS BASQUES SOMMES A+, B-, AB+ MAIS SURTOUT O- !

Faites briller votre exception dès maintenant !
Donnez votre sang.

Prenez rendez-vous
dondesang.efs.sante.fr

Lurraldeko berezitasun genetiko identifikatua

Frédéric Bauduer Baionako ospitaleko hematologoa eta Bordeleko Unibertsitateko antro-po-biologia irakaslea da. Tesia eta ikerketa-lan gehienak Frantziako estatuko hego-mendebaldeko muturreko biztanleen berezitasun biologikoen ikerketari buruz egin ditu. *“Odol taldeak giza aldakortasun biologikoaren lehen ikerketa gaia izan dira, populazioen historiaren markagarri genetikoak baitira. Eremu geografikoen arabera, maiztasun ezberdina dute, hainbat faktorerengatik; horien artean, populazioaren hastapeneko osaketa genetikoa eta mendeetan barna migrazio-mugimenduak eta hautespen naturala direla-eta gertatu nahasketak. Alderdi horretatik, Euskal Herriaren egoera harrigarria da, biziki aspaldiko ezaugarri genetikoek irauten baitute, nahiz lurraldea betidanik giza talde anitzek zeharkatu duten”.* Hala, biztanlerian **O taldeko jende anitz dago**, baita **munduko rhesus negatiboaren maiztasun handienetakoa** ere. Hala ere, irakasleak dionez, *“XX. mendearen lehen erdian agerian eman diren ezaugarri horiek biztanleriaren mailan dira kontuan hartu behar. Banako batek O odol taldea eta rhesus negatiboa ukateak ala ez ukateak ez du nehola ere jende horren euskal jatorria ziurtatzen ala ukatzen”.*

Euskara: prebalentzia hori azaltzeko pista bat?

Euskal Herria A eta B odol talde gutien dituen Eurasiako lekua da. Odol ezaugarri genetiko horiek, beharbada, badute zerikusirik euskararen originaltasunarekin. Izan ere, euskara ez da hizkuntza indoeuroparra, Europako hizkuntza gehienak bezala.

Baliteke, beraz, egungo euskaldunak Pirinioetako mendebaldean duela biziki aspaldi kokatu jende-talde baten ondorengoak izatea, eta talde horretan Europako beste biztanlerietan baino nahasketa genetiko gutiago gertatu izatea. Bakartasun horrek, hain segur, arrazoi anitz ditu: geografikoak (iragate-eremua), kulturalak (hizkuntza, zuzenbidea eta bizimoldea) eta politikoak (Erdi-Aro klasikoa arte, botere independentea).

Oro har mestizatuagoak izanik ere, biarnesek euskaldunen ezaugarri genetiko ber batzuk atxiki dituzte, bereziki mendi eremuetan. Haiek ere O taldeko eta rhesus negatiboko proportzio handia dute.

Ezinbesteko mobilizazioa, hil ala biziko larrialdiak eta tokiko beharrak asetzeko

“Pirinio Atlantikoetan sortu emaillek, O odol taldekoak (%51 dira, eta Frantziako estatuan %44) eta bereziki O taldeko eta rhesus negatibokoak (%44 dira, eta Frantziako estatuan %6,5) direnek, transfusioa behar duten erientzat abantaila handia dute. Ehuneko horiek oraino handiagoak dira mendi aldean eta Euskal Herrian sortu jendeen artean”, azaldu du Akitania Berriko EFSeko medikuntza-zuzendari Xavier Lafarge medikuak.

Bestalde, zehaztu duenez, *“Pirinio Atlantikoetan ospitaleratzen diren erien %47 O taldekoak dira, eta %8 O taldekoak eta rhesus negatibokoak². Frantzian, batez besteko horiek %43 eta %6koak dira. Arazoa da jende horiei beren odol taldeko globulu-kontzentrazioak baizik ezin zaizkiela sartu. Beraz, talde horretako odol beharrak handiagoak dira departamendu honetan besteetan baino”.* Beraz, bana beste, Euskal Herriko osagarri egiturek O taldeko odol gehiago behar dute Frantziako estatukoek baino. Tokian berean behar diren baliabideak ukaitea komeni da, beraz.

“Bi datu horiek argiki erakusten dute egunerokoan O taldeko eta rhesus negatiboko emailleak mobilizatzea zinez garrantzitsua dela, bereziki jakinez Akitania Berrian odol gutiago ematen dela, opor eta “zubi” anitz duten garaietan bereziki; adibidez, maiatzean”, azaldu digu Akitania Berriko odol hartzeen arduradun Fabien Lassurquere medikuak.

Hori guzia dela eta, EFS erakundeak Pirinio Atlantikoetako odol talde guzietako emailleak, eta bereziki O negatiboak, odola emateko hitzordua hartzera deitzen ditu. Odola gure Biarritzeko odola emateko etxean eman dezakete, baita beren etxe inguruetako guneeetan ere.

Emaien hitzak!

“O taldeko eta rhesus negatiboko odola dugunok emaile unibertsalak gara. Beraz, egiteko bat dugu! Garrantzitsua da besteentzat ematea eta gogoan atxikitzea guk ere gure taldeko globuluak baizik ezin ditugula hartu.” Léa – 26 urte

“Badakit emaile unibertsala naizela; beraz, enetzat, ene eginbeharra da odola ematea, noiznahi biziak salbatzen ahal baititu. Ene burasoek odola ematen zuten, eta normala iduri zait familiako ohitura hori segiaraztea.” Bixente – 44 urte

“Angelutik etortzen naiz Biarritzeko odola emateko etxera ematera, eta erregulariki ematen dut odola. Gutienekoa da, ahal dugularik, besteak laguntzea.” Camille – 38 urte

Hitzordua har, biziak salbatzeko!

Hitzordua nola hartu?

- **Bilketa ibiltarrietan eta Biarritzeko odola emateko etxean:** hitzordua mon-rdv-dondesang.efs.sante.fr gunean ala EFS erakundearen **Don de sang** aplikazioan har.
- Lantaldea telefonoz ere dei dezakezu, 0800 744 100 zenbakira.

COVID-19 informazioa

Odol bilketetan, birusa zabal ez dadin, babes neurri guziak hartzen ditugu: denek maska eman behar dute, eta distantzia eta higieine neurri zorrotzak hartzen ditugu.

Covid-19 gaitzaren sintomak dituzten eriek sintomak desagertu eta 42 egun itxoin behar dute odola eman aitzin. Kasu gehien-gehienetan, **Covid-19 gaitzaren kontrako txertoa ukan ondotik odola ematen ahal da**, berehala.

Zer da EFS?

Odol emateei esker, emaileak eta hartzaileak partekatze ekonomiaren muinean dira. 10 000 parte-hartzaile, mediku, biologo, laborategietako teknikari, ikerlari, erizain ala EFS erakundeko bilketa langile, milaka bolondresekin lankidetzan, azkarki engaiatzen dira, egunerokoan bezala ezohiko egoeretan, emateak bizi bilakatzeko eta urtean milioi bat eri sendatzeko. EFS Frantziako estatuko odol transfusioaren eragile zibil bakarra da, eta bere eginbehar nagusia Frantzia odol-produktuetan autosufizientea bilakaraztea du.

Bestalde, beste hainbat jardueretan aritzen da: medikuntza-biologiako analisietan, zelula eta ehun terapian eta ikerketan. Emateak kualifikatzeaz gain, EFSeko laborategiek analisi biologiko, hematologiko eta immunologikoak egiten dituzte, ezinbestekoak baitira transfusioak egiteko eta organoak, ehunak eta zelulak txertatzeko. EFSek urtean 500 milioi egintza baino gehiago antolatzen ditu; hala, Frantziako estatuko medikuntza-biologiako laborategi handiena da. Frantziako odolaren erakundea Frantziako estatuaren lurralde osoan aritzen da, 128 gunetan, emaileengandik eta eriengandik ahal bezain hurbil izateko eta parerik gabeko bere baloreen aldarrikatzeko.

Frantziako odolaren erakundea. Odol ematea baino aise gehiago.

Akitania Berriko EFSeko prentsa arduradunak

Camille JOURNET, komunikazioaren zuzendaria
camille.journet@efs.sante.fr - 06 87 85 89 27

Pirinio Atlantikoak

Nathalie ALBOR
nathalie.albor@efs.sante.fr - 06 72 32 47 45

Sylvanie GASSIAN, komunikazioaren zuzendariordea
sylvanie.gassian@efs.sante.fr - 07 88 63 38 39